SANTUA... BIBLIOTECA ...RANZAZU

Margarita Nafarruako Erregiñan

Ipuiñ Batzuk

(Eibar-ko euskeran)

FRAILLIAN EGIXAN SARIXA

Sedan-go Kondian jauregira eldu zan beiñ fraille bat, kondesiari eskatzeko asmuan, urtero emoten eban urdia, laguntasun letz, euren konbentuari.

Kondia zan kontulari, alai, adar-jotzallia, eta jarri eben fralliori maira bazkaittarako. Eta au zirikatu gurarik maiko jarduna biztutzeko, esan zetsan txantxetan:

—Ondo pentsaua zuek ezagutzen ez zaittuen aldietan eskian jartzia, batian batzuk eta bestian beste batzuk; ezagutzen zaittuen tokixetan, ba, ezta erreza ume gizajuen ogixa gurasuak zueri emotia.

Fralliak, ez ikaratu eta ez asarratu barik kondiak ziñuanakin, esan zetsan:

—Jauna, gure frailletzako relijiñua, aiñ ondo jarrittakua da eze, mundua mundu izan deiñ artian, iraungo dau osasun eta urte-oneko; zergaittik bere oiñarrixak ez dau utsik eiñgo gizonak ustez eta andrazkuak benetan aintzen izan deittian artian lurrian.

Kondiak, garbi jakin gurarik frailliak ziñuan oñarri ori zer izan ete zeikian, eskatu zetsan luzetu zeilla apur bat autu onen gañian, argitturik oso gauzia. Eta au fraillian erantzuna:

—Jakin gura dabenetik bedorrek oñarri diñotenan agirixa, esango detsut benetan, egixan sarixan kontura, gu bizi garala andrazkuen zoro-usaiñen pekora, eta andrakume txori-buruak zeru azpian diran artian —beti esatia da— guk ez dogula goserik izango.

Bere barrua suturik, kofradixako kandelia jasota, kondesiak, senarra izan ez bazan aurrian, ostikoka atarako eban frailliori; baña ixildu biar ordu artan, biotz intenziñoz eiñ eban, aurten, konbentuari urteroko laguntasuna ukatzeko, fraille lotsagabia utsik bialdu etorri zan bidetik.

Baña kondiak, gozamenian eta kontentuz beteta, frailliak emon zetsan erantzun zintzuagaz, eta bestaldetik, emaztiari apur bat asarratu eraittiagaitik, aindu zetsen zerbitzallieri, aurten txarri gizen bi emotia laguntasun letz, fraille zintzuan konbentura.

GORRA BAÑA BURUGIÑA

Tours deritzen dan Frantzia-ko uri aundi ederrian, gizon bat zan oso asmotsua eta burugiña, ango jaun nausixan zerbitzalle onenetariko bat bere langintzan. Eta gaitz batek gortuta laga arren, ez zetsan utsuna onek gitxitu, ez ofiziuan albidaderik eta ez ostiango gauzetan aurrera urtetzeko eban altasun zorrotza.

Ezkondua zan emakume eder zintzo bategaz eta ondo ta baketan bizi ziran. Ba, beti arduratan senarra emaztian gustua eitteko eta au, bere aldetik, aura kontentuz erabiltzeko.

Baña senarra, gizon askon antzera, emaztiari gura zetsan guztiagaz, zan azkonarra ez esatiarren apua, eta ari biar zetsan mesedia, sarri auzuan eitten eban, naiz biar ixillian.

Eta etxian ebela neskame mardo eta itxura onekua, senarrak, gor ta guzti, begixa jota eukan eta bittarte guztietan aren talaixan ebillen. Eta emaztiak ez zeixan txarrik pentsau, asarre eitxen zetsan askotan, esanaz etxeko-andriari, ezagutu eban neskame nagixena au zala.

Eta beiñ, andra-gizonok euren artian esaten zirala aztartu bat biar ebala arek zerbaitt arindu zeiñ, pentsau eben Iñuzente egunian iñuzente eraittia, neskamiorri. (Iñuzente eraittia izaten zan, goiz artan oyan arrapatzen zanari irizillakin bizkarra berotzia.)

Ontarako, gizonak ziñuan andriari, ondo etorriko jakola neskame nagixorri pentsau eban aztartua, baña bera, emaztia, andrakumia zanetik, makalegixa izango zala zeregiñ artarako, eta bere kontu, gizon letz, biarko zala utzi zigortzia alperrori.

Beti ondo pentsaua, emaztiak errazoia emon zetsan ontan senarrari, ez ba berak biotzik iñor joteko. Eta senarrak, tratu aren beyan, gertau eban zigorra gatz-uretan beratuaz miñgarrixagua izan zeiñ; eta etxeko-andra koittaua, ainbeste ikustiakin, neskamian erruki zan aurraz, susmau barik gizonak erebixan aixelkokerixia.

Iñuzente egunian (Abenduan 28 garrena) goizian-goiz, jaiki zan borreru eiñ biar ebana eta igo eban neskamiak lo eitten eban gelara bere intenziño okerrakin, eta oindiok oyan zanetik, eraiñ zetsan iñuzente emaztiak pentsatzen ez eban araura. Eta neskame koittaua azpixan ibillitta gero negarrez zan artian, gizon zazkarrak zigortzen eban ogeko zura bere indar guztiegaz emaztian intenziñora.

Zeregiña amaituta jatxi zan kastigatzallia, esanaz emaztiari oroituko ebala zigortuak bere bizi guztian Iñuzente eguna. Eta borreruak etxetik kanpora alde ebanian, neskame errukigarrixa agertu zan etxeko-andriagana, belauniko, negarrez esanaz zerlako miñak emon zetsazen uezabak. Etxeko-andriak, zigorran miñegaittik ebalakuan erabixan illetia, esan zetsan ondo eiña, eta berak gertau zetsala gizonari gauzian aukeria.

Neskamiak, au entzunakin etxeko-andriari, pentsau eban arek ondo erizten zetsala uezabak eiñ zetsan gauziari, ez zala au esaten eben bezelako pekatu aundixa; eta ixildu zan eta aurreran ez zetsan geixago ezetzik esan uezabari.

Eta onetara, luzero alkarregaz ondo aitzen zirala, egun-senti baten bururatu jakon uezabari lorateiko bigunian "iñuzente" eraittia neskamiari, eta au danari bayetzian eukala, egon ziran jolasetan bedartzan iñok ikusiko ez balittu letz. Oittutako jolas guztiak eiñ zittuenian, gizonori konturatu zan, auzoko andra barriketalari bat zala leyotik eureri begira, eta estutu zan.

Baña beti eukanetik dana konpontzeko maratillaren bat, autu au izanda jarraixan, atara eban ogetik emaztia bertan zan bezela, eta eruan eban lengo bedartzara, eta eiñ zittuan tokixan emaztiagaz, neskamiakin eiñ zittuan jolas guztiak, eta itxuli ziran berriz lotara, goizegi zanetik ondiokan eguneroko zeregiñetarako.

Etxeko-andra ona urten zanian amaiketako mezatara, elixatik etxerutz itxulitzerakuan, juan jakon auzoko andra barriketalarixa, eta beste barik esan zetsan, bialdu zeixala azkar etxetik neskamia bakia gura ba eban. Eta nola baten eta bittan eta geixagotan andra barritxuak ez zetsan esan gura zergaittik gauza astuna zalako, edo biar bada gauzia astunagua eitxeko, erregutzian puruan, esan zetsan azkenian, leyotik ikusi eban guztia lorateiko bedartzan, ezer ezkutau gabe, ez gizon eta ez neskamianik.

Auzokuari bere ipoña aittutziaz bat, gure etxeko-andriori, senarrari zetsan ondo eruanagaz arro zala, asi zan barrez itxo biarrian, esanaz:

—Baña, andra, neu banintzan nere senarragaz!

—Baña zu! nola atorra utsian, bedartzan eta goizeko bostak inguruan?

—Bai, ba, diñozun guztia egixa dala, neu eta ez besterik senarragaz!

—Baña andra! —auzokuan temia—. Ikusi badot neskamian bularretan ebala esku bata eta bestia ezkutuan, ezi-bako aiskide barri bi balitzaz letz?

—Diñozun dana neregaz!

—Eta ondorengo aztartua be bai?

—Baita ori be! senarragaz nintzan ba. Eta ez zaittez ainbeste arritu ikusi dozunakin, andra. Emazte ona danak senarran burutaziño zoro guztietara apaldu biar dau ondo izateko.

Auzokuak, lagunangandik aldetzerakuan, ez eban beste gurarik, orrelakotxe senar bat eukitzia baño, aiñ zerbitzalle azkarrixa, ainbeste urte igarota gero alkarregaz.

BOTIKARIXUA BOTIKA BIARRIAN

Pau, Biarno-ko urian zan botikarixo bat, Etienne jauna deritzen zana, zeñek sasoiz artu eban emaztetzat emakume eder bat, etxeko-andra zintzoki eitten ebana bixen onerako.

Baña botikarixua, gizon kaskilla zanez, erremedixo bat baño geixago erabiltzen zittuan, artara andrazko danetarikuen izatiak jakin gurarik. Baña ez bere emaztian kalte barik, au eukan ba aztuta, baztartuta, oge-lagun Garizuman baño ez ebala, eta au penitentzia ordez. Zergaz emakume koittaua zan ixa amaittuta ebala bere eruan-ona.

Eta bein botikarixua botikan zala eta bere emaztia an ezkutuan gordeta, entzun gurarik gonadun bezeruegaz erabiltzen zittuan autuak. Sartu jakon andrazko bat, auzokua zan, itxuraz ezkutukuan illeta ber-bera erebixana, bere senarragaz, zeñek erdi negarrez esan zetsan:

—Ara ni, jauna, munduan emakumerik zori txarrenekua! Nere senarra nere burua baño geixago maitte doranetik, ez dorala beste ardurarik bera ondo erabiltzia baño, eta dana alperrik. Erriko edozeiñ itxusi, zazkar eta zikiñ naixago dabela bere emazte garbixa baño. Ala, beittizu mesedez, jauna, senarra neregana zergaz itxuli ia erremedixorik dozun, eta ordainduko detsut, ziur, bestek ez bezelako neurrixan.

Botikarixuak, koittaua zerbaitt poztutziarren, esan zetsan bazala auts bat, bai saldatan edo bai aragi erriakin naste artu eraiñ ezkero senar aztukorrari, sekulako ongarri izango jakola gaitz aren aurka.

Andrakume zintzuak, erremedixo miragarri orren barri entzunaz, jakiñ gura izan eban, bere senarra osatzeko beste lortu algo ete eban.

Botikarixuak erakutsi zetsan arasatik artu eban ontzi bateko autsa (1), eta eukan mordotik apurtxo bat batuaz papelian, esan zetsan auraxe naikua ebala senarran goguak esnatzeko, bere alderutz. Pozik, aberastu balitza letz andrazko errukarrixa, juan zan eskerrak emonaz, erremedixo arekin milagruan itxaropenian.

Botikarixuan emaztiak, bere ezkutu-lekutik autu onen itz bat bera be galdu ez ebanetik, pentsau eban berak be aurkittu ebala bere zori txarran erremedixua, eta ez eban kendu begirik ikusi ebanetik geixago ia nora itxuli eban, senarrak, ontzi miragarrixori.

Egun bi edo irura, botikarixo jauna aurkittu zan barruko tristuriakin, eta emaztiari eskatu zetsan janari on bat gertau zeixola ogetik jaikitzen zanerako, botikan arturik biar zittuan India-ko ongarrixak obeto izateko.

Onekin batera, emaztiak atara eban auts miragarrixa, ta ez gitxi. Eta gertau eban senarrak eskatu zetsan janarixa. Gozua eritzi zetsan botikarixuak eta eiñ eban ekiñ-aldi on bat, bete-bete eiñ zan arte. Eta emaztiak ez eban izan luzero ondorenan zaiñ egon biarrik, ba beriala gizonori atzetik jarraixan eban. Baña zelan auts demoniua larregi ezarri zetsan jatekuari, ez zan aren sua emetauko eban modurik, emaztiak pentsatzera arte berenua artu eraiñ zetsala jateko artan eta beste barik ill biar zala.

Estuasunian, deittu biar izan zetsan, arinka baten, Nafarrua-ko erregiñan botikarixo nausi lelenari, zeñek biar ziran kontrako erremedixuak artu eraitziakiñ, beriala osatu eban, kidekuari asarre eiñaz berak artu gura ez zittuan botikak iñori aintziagaittik, eta esanak, emaztiak ez ebala kulparik, iñori sartu gura eban zirixa berari sartziagaz.

ZALDUNA NESKAME JANTZITA

Bigorre-n, Odoz-ko gaztelu-jauregixan bizi zan zaldun jator jaso bat, italiarra bera, erregian ondorenguen artekua. Emakume on bategaz ezkondua zan, oso etxerakua, zeñegaz euki eban famelixa ederra. Umiak aztiak eta urtien jarraixak, espero izatekua zan letz, igartu zetsan ainbat emazte maittia, naiz da bera be, alperrik jai zeregiñ orretatik, ez ebillen zimurruna batzuk barik.

Baña jakiñeko ondamendi au ta guzti, bixak bizi ziran maitte eta bake onian. Zaldunori, ondiokan ollar uste zala, erabiltzen zittuala jardun alaixak neskamiagaz zerbaitt gurarik; etxeko-andria larregi

(1) Cantharida aphrodisiaca.

arduratu gabe senarran zorakeri onegaz, neskamiak kalera botatziakin aiskidetasuna neurri batera eldutzen zanian.

Eten bako aldatze onetan, etxeko-andriak artu eban beiñ neskame gaztetxo bat, oso zintzua eta berez argixa, eta jakin eraiñ zetsazen aurrez bere eta uezaben oittura eta izakerak, aitzen emonaz, uezabari larregi lagatzen bazetsan kalera biarko ebala.

Neskame onek, egunak juanaz, artu zetsan lege ona eta aundixa etxeko-andriari, zeñegaz ederto konpontzen zan. Zaldunak, bere aldetik, esaten zetsazen sarri berba samurrak, apurka-apurka onian zerbaitterako bidian ipiñi nairik. Neskame gaztetxuak, aurrerapenik emon gabe jaunari ondo erantzutziakin, kontatzen zetsan dana etxeko-andriari, bixak barre eiñaz gizonen zoro usaiñen kontura.

Eta beiñ neskamia galbaiakin garixa astintzen zala, zapi zar bategaz burua estalduta autsagandik kopetak (mototsak) gordetzeko, atzekaldetik uezaba agertu jakon, eta artu eban besartian estuturik koittauaren bigun unak.

Neskamiak, naiz da asko falta ez iltzeko bildurrez, apalduko balitz letz eiñ zetsan aren desiora, erreguturik utzi zeixola apur baten ikustera juan zeiñ ia etxeko-andria ez ete zan inguruan. Eritxi artan zirritzalliori, artu eraiñ zetsan neskamiak galbaia, jantzi zetsan amantala aurrian eta buruan estalki zarrori, eta aindu zetsan amaittu zeixola zeregiña bera esandako autuan ari zan artian. Zalduna, pentsatzen eban konturako sarixan pozez, su-ta-ke an geldittu zan gari astintzen.

Neskamia, artian, eldu zan antxitxiketa baten etxeko-andriagana, esanaz:

—Atoz ariñ ikusi gura badozu zer zeregintzan laga doran zure zaldun senarra bere besartetik iges eitteko.

Etxeko-andria ez zan luzetu bidian, eta ikusirik zaldun jasua zanaren itxura barregarrixa gari astintzen neskame baten antzera, txaluak juaz esan zetsan aurrera eldu baño len:

—Zer soldata gura dau bedorrek arazu orregaittik?

Zaldunak bizkor ezagutu eban emaztian abotsa, eta jaurtirik lurrera dana, asarre aindu zan neskamiagana milla berba zittal ari esanaz, eta emaztia an ez izatera, kalera atarako eban modu txarrian.

Baña, Jaungoikuari eskerrak, azkenian, daneri berotasunak juan da gero, guztia izan zan onerako, aurreran ba, danak bizi izan ziran bake ederrian.

TORIBIO ECHEBARRIA'K EUSKERATUA.